



EEPF
Euskadiko Euskal
Pilota Federakuntza

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza.
Federación de Pelota Vasca de Euskadi.

Teléfono: 94.681.81.08 / 665.764.881 / Email: info@eepf.org / Astola 26 Abadiño 48220

URREZKO DOMINA EMAKUMEZKOETAN ETA BRONTZEZKOA GIZONEZKOETAN TXAPELKETAKO BIGARREN EGUNEAN

Joko Internazionalako azken fasea jokatu da gaur goizean eta emakumezkoetan Europako titulua lortu dute Herbehereei 6-2 nagusitasunez irabazita eta gizonezkoetan zorte txarra medio finalerdiak galdu dituzte 5-6 Herbehereen aurka.

Atzoko egunean, gizonezkoek, asko sufrituta, Joko Internazionalako finalerdietan sartzea lortu zuten azken Munduko txapelketako bi finalisten talde berean tokatu eta gero. Gaurko erronka haundia zen, Herbehereak bezalako talde indartsu bati irabaztea hain zuzen ere eta azken jokoan jokamolde honetan hain garrantzitsua den haizea kontra eduki eta gero 5-6 galdu dute gure mutilek. Porrota asimilatzeke denbora gabe, jarraian, hirugarren eta laugarren postua zehazteko partida hasi behar izan dute eta oraingoan bai, sekulako erakustaldia emanda, nagusitasunez 6-3 irabazi diete Belgikari. Gizonezkoentzako historiako lehen domina izan da jokamolde honetan eta nahiz eta oraingoan brontzezkoa izan, erakutsi duten jokoa ikusita etorkizunean urrezkoa ere izan daitekeela erakutsi dute.

Emakumezkoek, taldeko faseko azken bi partiduak jokatura hasi dute goiza. Lehenbiziko partiduan Balentzia izan dute aurkari eta aurretik ikusi gabeko nagusitasunez 6-2 irabazi diete aurreko urteko Munduko txapelketako finaleko aurkariari. Bigarren partida tramite hutsa izan da eta 6-1 Ingalaterrari irabazita finalera sailkatu dira. Finala Herbehereetako talde lehiakorraren kontra jokatu dute eta taldeko faseko partida ikusita, non 6-5 irabazi zuten, partida gogorra izatea espero zen. Ez da horrela izan ordea eta gure neskek nagusitasunez gailendu dira 6 eta 2. Beste nazioarteko titulu bat talde ikaragarri honentzat. ZORIONAK!!!!.

Goiz eguerdikoa gutxi izan ez bada, arratsaldean One Wall modalitateko taldeko fasea jokatu behar izan dute gure neska mutilek. Mutilak taldeko lehen sailkatu moduan pasatu dira finalerdietara beraien hiru partiduak nagusitasunez irabazita eta emakumezkoak taldeko faseko lehen bi partiduak oso erraz irabazi dituzte. Bihar goizean One Walleko azken fasea jokatuko da Freixoko kiroldegian eta arratsaldean Llargues eta emakumezkoen Joko Tradizionalaren txanda izango da.

Egun ikaragarri polita bizi izan dugu Freixon gaurkoan eta espero dugu azkena ez izatea.



EEPF
Euskadiko Euskal
Pilota Federakuntza

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza.
Federación de Pelota Vasca de Euskadi.

Teléfono: 94.681.81.08 / 665.764.881 / Email: info@eepf.org / Astola 26 Abadiño 48220

MEDALLA DE ORO EN CATEGORÍA FEMENINA Y BRONCE EN CATEGORÍA MASCULINA EN EL SEGUNDO DÍA DEL CAMPEONATO

Esta mañana se ha disputado la fase final del Juego Internacional y en categoría femenina han logrado el título europeo tras ganar a los Países Bajos por 6-2 y por mala suerte en categoría masculina han perdido las semifinales por 5-6 ante los Países Bajos.

En el día de ayer, los chicos, sufriendo mucho, lograron meterse en las semifinales del Juego Internacional después de haberles tocado en el mismo grupo que los dos finalistas del último Mundial. Era el gran reto de hoy, ganar a un equipo fuerte como los Países Bajos y después de tener en el último juego el viento en contra tan importante en esta modalidad, nuestros chicos han perdido por 5-6. Sin tiempo para asimilar la derrota, a continuación, han tenido que empezar el partido para definir la tercera y cuarta plaza y esta vez sí, con una exhibición increíble, han ganado con autoridad a Bélgica por 6-3. Ha sido la primera medalla masculina de la historia en esta modalidad y aunque esta vez sea de bronce, a la vista del juego que han demostrado, seguro que en el siguiente campeonato será de oro.

Las féminas han comenzado la mañana disputando los dos últimos partidos de la fase de grupos. En el primer partido se han enfrentado a Valencia y han ganado 6-2 a su rival en la final del Mundial del año anterior. El segundo partido ha sido un mero trámite y tras ganar 6-1 a Inglaterra se han clasificado a la final. La final se ha disputado contra el equipo competitivo holandés y viendo el partido de la fase de grupos, en el que ganaron 6-5, se esperaba que fuera un partido duro. Pero no ha sido así y nuestras chicas se han impuesto con autoridad 6 y 2. Otro título internacional para este equipo descomunal. FELICIDADES!!!!.

Si lo de la mañana y mediodía no ha sido poco, por la tarde nuestros chicos y chicas han tenido que disputar la fase de grupo de la modalidad One Wall. Los chicos han pasado a semifinales como primeros clasificados de grupo tras ganar sus tres partidos con autoridad y la chicas han ganado los dos primeros partidos de la fase de grupos con suma facilidad. Mañana por la mañana se disputará la fase final de One Wall en el polideportivo de Freixo y por la tarde será el turno de Llargues y del Juego Tradicional femenino.

Hoy hemos vivido un día muy bonito en Freixo y esperamos que no sea el último.